



ATHLETIC CLUBEN KONTROL EKONOMIKO, GARDENTASUN ETA GOBERNU ONEKO BATZORDEAREN TXOSTENA BATZAR NAGUSIARENTZAT

1) SARRERA

Athletic Cluben Kontrol, Gardentasun eta Gobernu Onaren Batzordea indarrean dauden Klubaren Estatutuetan araututa dago. Estatutu horiek Batzar Nagusiak onartu zituen 2022ko maiatzaren 23an. Zehazki, 60. artikulua haren funtzionamendu-araubidea ezartzen du, jarraian adierazten denez:

1. *Kontrol, Gardentasun eta Gobernu Onaren Batzordea Klubaren kide anitzeko organoa da, eta Klubak egindako eragiketa eta jarduera ekonomiko, finantzario, fiskal eta administratiboak aztertzea, ikuskatzea eta ebaluatzea du helburu, bazkideei kudeaketan garrantzitsuak diren alderdien berri emateko eta kudeaketa gardena eta gobernu onarekin bat datorrena lortzen laguntzeko.*
2. *Kontrol, Gardentasun eta Gobernu Onaren Batzordeak ez du eginkizun betearazlerik izango, eta ezin izango du Zuzendaritza-Batzordeari edo Klubaren kudeaketa-organoei hertsatzeko, zehatzeko edo gaitzesteko erabakirik hartu. Ahalmen horiek Konpromisarioen Batzarrari dagozkio, Klubaren organo subiranoa den aldetik.*
3. *Hauek dira Kontrol Ekonomikoko Batzordeari esleitutako eginkizunak:*
 - a. *Gertaerak, kontratuak eta, oro har, izaera ekonomiko, finantzario, fiskal eta administratiboko eragiketa garrantzitsuak aztertzea, ikuskatzea eta ebaluatzea, Klubak egindakoak edo Kluba inplikaturik dagoen edo partaide izan den kasuetan. Jarraipen hori jarraitua izango da. Batzordearen jarduera-eremutik kanpo geratzen dira kirol-lantaldeari buruzko eragiketak*
 - b. *Aurreko puntuan adierazitako jarraipenaren emaitza jasotzen duten txostenak eta dokumentuak egitea eta Klubaren Gardentasun Atarian argitaratzea.*
 - c. *Zuzendaritza-Batzordeak haren eginkizunak behin eta berriz oztopatzen baditu edo ekonomiaren aldetik irregulartasun larriak antzematen badira, txostena egitea.*



- d. *Zuzendaritza-Batzordeak hasierako onespenik ez badu, Batzar Nagusiari berriz aurkeztu behar dizkion urteko kontuei buruzko txostena egitea. Txosten hori Klubaren webgunean argitaratu beharko da deialdiarekin batera, eta Batzordeak izendatzen duen pertsonak ahoz azaldu ahal izango du Batzarrean.*
- e. *Estatutu hauetan eta araubide ekonomikoari, gardentasunari eta gobernu onari buruzko garapen-erregelamenduetan jasotako xedapenak betetzen direla egiaztatzea.*
- f. *Estatutu hauetan Zuzendaritza-Batzordeen abalak gordailutzeari eta betearazteari buruz aurreikusitako beste eginkizun batzuk.*

- 4. *Bere eginkizunak betetzeko, organo honi esleitutako xedea betetzeko beharrezkoak diren kontabilitate-erregistroak, kontuak, finantza-egoerak, banku-laburpenak, kontratuak eta edozein motatako dokumentazioa aztertu ahal izango ditu.*

Eta Zortzigarren Xedapen Iragankorrek, 2. atalean, organoa honela eraldatzea aurreikusten du: "Klubaren egungo Kontrol Ekonomiko eta Kontratazio Batzordea Kontrol, Gardentasun eta Gobernu Onaren Batzorde bihurtuko da automatikoki, Estatutu hauek indarrean sartzen direnean".

Batzar Nagusiak, 2023ko urriaren 31n egindako bilkuran, Athletic Cluben "Kontratazio Erregelamendua" onartu zuen, zeinaren preskripzioak errespetatu baitituzte Batzordeko kideek beren lana egitean.

Ibon Areso Mendiguren, Gontzal Fresno Astorki eta Joseba Iñaki Sobrino Aranzabe bazkide konpromisarioek osatzen dute Batzordea. Bazkide horiek 2020ko abenduaren 27ko Batzar Nagusian hautatu ziren, eta txosten hau sinatzea erabaki zuten, aho batez, 2024ko irailaren 4an. Batzordeko kideek, beren eginkizunak betetzeko behar zuten informazioa eskuratu aurretik, konfidentziasun-adierazpena eta -konpromisoa sinatu zuten, Zuzendaritza-Batzordearekin adostutako baldintzetan.



2) BATZORDEAREN JARDUERAK

Batzordeak ez du txostenik egin 2024an, Zuzendaritza-Batzordeak eskatuta. Batzordeak *“Athletic Cluben Gizarte Erantzukizun Korporatiboaren eta Gobernantza Oneko Kodearen”* Aurreproiektua aurkeztu zien Batzordeko kideei, azter zezaten, eta Batzordeko kide batzuek oharrak egin zizkioten Zuzendaritza-Batzordeari, eta horietako batzuk izapidetzen ari den proiektuan sartu dira.

3) ESPEDIENTEAK FISKALIZATZEA

Kontrol Ekonomiko, Gardentasun eta Gobernu Onaren Batzordeak 2023-2024 denboraldiko kontratazio-espedienteak fiskalizatu ditu, Estatutuetan eta Athletic Cluben Kontratazio Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

Zuzendaritza-Batzordeak onartutako 2021eko gure txosteneko 12. gomendioan iradokitzen zenaren arabera, Batzordeak Klubaren aurrekontuaren %0,5 gainditzen zuten kontratuak fiskalizatu ditu, bai eta 29.999'99.-eurotik gorako kontratuen ausazko lagin bat ere; horregatik, Kontratazio Erregelamenduaren arabera, lehia askeko edo gonbidapen bidezko lizitazio-prozedura baten bidez kontratatu behar ziren, bai eta zenbateko txikiagoko kontratuenak ere.



ATHLETIC CLUB

Fiskalizatutako espediente horiek honako hauek dira:

Xedea	Esleipenduna
Kopako finalaren ekitaldiak (Athletic Hiria eta jarraipena San Mamesen)	1. lotea. Sevilla 2. lotea. San Mames. INNEVENTO SL (167.880.-euro)
Eserlekuz aldatzeko langile-zerbitzua	TRACKLAND ETT (9.371'93.-EURO)
Dendetako langileak kontratatzeko zerbitzua.	TRACKLAND ETT (50.000.-euro, Castore-ren kontura)
Urrezko eta bitxien intsigniak eskuratzea.	TALLERES KORTA S.L. (9.800.-euro)
Lezamako elikadura eta catering zerbitzua	UTE Aretxarte-Suspertu. (Kontratu-aldaketa, zenbateko osoa aldatu gabe)
"Bidaia-agentzia ofizialaren" kontratua	<i>Esleitzeko izapidean dagoen kontratua</i>

Kontrol Ekonomiko, Gardentasun eta Gobernu Onaren Batzordeak, espedienteak aztertu ondoren, ondorioztatu du kasu horietan hobetzeko hainbat aukera daudela Kontratazio Erregelamenduan jasotakoa betetzeari dagokionez. Aztertutako espediente guztiei eragiten ez dieten hobekuntzak dira (oro har esango denaz harago), baina bai fiskalizatutako espediente kopuru esanguratsu bati.



ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE
PALACIO IBAIGANE JAUREGIA, ALAMEDA MAZARREDO, 23, 48009 BILBAO (BIZKAIA)
TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE
GARAIOLTZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS





Batzordeak, hala ere, beharrezkotzat jotzen du aldez aurretik gogoeta batzuk egitea.

- 1) Klubak Kopako Finalarekin lotutako zerbitzuak kontratatu zituen, kontratazio-pleguak egin ondoren. Taldearen sailkapenaren eta ospakizun-dataren artean epe laburra igaro zenez, ahalegin handia egin da, batez ere kontuan hartu beharreko parametro ugari eta esleipenean erabili beharreko formulen konplexutasuna aintzat hartuta.
- 2) 2023ko gure txostenean aipatzen genuen beharrezkoa zela baldintza-agiriak egitea eta horien arabera *"bidai-agentzia ofiziala"* zerbitzua kontratatzea. **Gomendio hau aintzat hartu da eta 2024an agiriak egin dira.** Oraindik ez da esleitu kontratua, klausulen arabera, eta laster egingo da.

Zehazki, fiskalizatutako espedientei dagokienez, Batzordeak honako hau ikusi du:

- 1) **Eserlekuz aldatzeko langileen kontratuak "salbuespenezko sistema" bat erabiltzen du, honako justifikazio honekin: "beharrezkoa da arreta ematen duten pertsonak azken bi urteetako berberak izatea".** ("Herri Harmaila" sortzeak aldaketa izugarria ekarri du eta prozesua nola garatu den ezagutu behar da).

Batzordearen ustez, justifikazioa eztabaidagarria da, baina, onartuta ere, kontratatutako enpresa ABLE bat da (beraz, ez du langile propiorik, eta berariaz prestatuta dago, dagoeneko ezaguna dena), eta, batez ere, Baldintza-agiriak ez du inolako bermerik jasotzen pertsona horiek berberak izango direla, eta hori da salbuespenezko prozedura justifikatzen duena.

Hala ere, Klubaren Zuzendaritza Nagusiak alegatu du kontratatutako pertsonak berdinak izan direla, eta lortu nahi zen helburua lortu dela, eta Batzordeak alegazioa onartu du, aurretik adierazitakoa alde batera utzi gabe.



- 2) **Gutziz Gutziz justifikatuztat jotzen dugu Castorek egindako eskaerari erantzutea** (eskaera hori ez da espedientean ageri, premiari buruzko txostenean aipatzen den arren, eta ez dugu zalantzan jartzen halakorik badela), **Athleticek kontratatu behar baitu dendetako langileen zerbitzua** (kostua osorik ordaintzen duen arropa-horniduraren enpresa esleipendunaren kontura), **dendetan lan egiten zuten langileek jarrai dezaten zerbitzua ematen, kontuan hartuta Castorek zailtasunak dituela hemen kontratazeko.**

Klubeko Zuzendaritza Nagusiak alegatu du kontratazioa 3 hilabeteko aldi baterako baino ez dela izan, Castore enpresak zuzeneko kontratazioa bere gain hartu ahal izan arte, eta Batzordeak alegazioa onartu du.

Hala ere, eta orain arte kontratua fiskalizatu ez denez, Batzordeak iradokitzen du azter dadila (batez ere iraupen luzeagoko kasuetan) honako hauek sartzeko aukera: kudeaketa-kostua konpentsatuko duen prezioa, interes-tasa bat, enpresak gastuak itzultzea atzeratzen duen kasurako, eta bermea, Klubak esleipendunarekin sinatzen duen kontratuan, dendetan kontratatuko diren langileek dagozkien baldintzak (linguistikoak, bereziki) beteko dituztela bermatzeko.

- 3) **Athleticek kontratu bat aldatu du (Lezamako elikadura- eta catering-kontratua), ondo ulertzeko moduko menuak bateratzeagatik, baina Baldintza-agiria aldatzeko beharra agerian uzten dute.**

Espedientean adierazten denaren arabera egin du, *"enpresa esleipendunarekin adostuta"* (Aretxarte-Suspertu ABEE). Hala ere, erabaki hori ez dago espedientean, agertu beharko lukeenean. Ez dago jasota, ezta ere, aldaketa-akordioak ondorioz ote duen kontratua osatzen duten beste klausula batzuetan. (Prezioa, adibide bat jartzeagatik). Kasu honetan, espedientea osatzen duen dokumentazioa osatu egin beharko litzateke dena delako akordioarekin, hori aholkatu zuten aurretiazko txostenekin eta hura sinatzeko baimenarekin, eta dagokion Baldintza-agiriaren idazketa berriarekin.



ATHLETIC CLUB

Klubeko Zuzendaritza Nagusiak, alegazio-fasean, aldaketa-kontratua sartu du espedientean, eta, beraz, akordioaren eta kontratu-oinarri berrien ziurtasuna egiaztatu da.

Nolanahi ere, kontratu-aldaketak bereziki zorrotz azertu behar dira, lehiaketarik gabe egiten direlako eta, agian, bere garaian hornitzaileen eskaintzak lortzeko erabili ziren lehia-arauak aldatzen dituztelako.

- 4) **Batzordeak hauteman duenez, hornitzaile bati (Talleres Korta S.L.ri, zehazki) egindako kontratu batetik abiatuta, hasierako kontratuan ageri ez ziren zerbitzu gehigarriak eskatu zitzaizkion, eta ez ziren banan-banan esleitu.**

Zerbitzu bakoitzak berariazko kontratazio berezia izan behar du, Klubaren Kontratazio Erregelamenduak ezartzen dituen arauak betez.

Horregatik guztiagatik, Batzordeak gomendio hauek proposatu behar ditu:

- 1) **Athleticek ez luke salbuespenezko kontratazio-prozedurara jo behar prozedura horiekin salbuespenezko izaeraren oinarri diren helburuak lortuko direla bermatzen dela berariaz egiaztatu gabe.**
- 2) **Athleticek ez lituzke kontratuak aldatu beharko, aldaketa egiteko hasierako kontrataziorako erabilitako prozedura bera erabili gabe, gutxienez.** (Txosten-proposamena, organo eskudunaren erabakia, baldintza berriak finkatzea, hori guztia idatziz...).
- 3) **Kanpo-hornitzaile batekin kontratatzen den zerbitzu bakoitza zehazki eta berariaz esleitu behar da, dagokion prozeduraren bidez.** Aurrez esleitutako beste batzuekin duen antzekotasunak ez du estaldura gisa balio ezarritako prozedurari kasu honetan ez jarraitzeko.

Bilbo, 2024ko iraila.



ERAKUNDEAREN EGOITZA - SEDE SOCIAL - HEAD OFFICE
PALACIO IBAIGANE JAUREGIA, ALAMEDA MAZARREDO, 23, 48009 BILBAO (BIZKAIA)
TEL: +34 94 424 08 77

KIROL INSTALAZIOAK - INSTALACIONES DEPORTIVAS - SPORTS CENTRE
GARAIOLTZA, 147, 48196 LEZAMA (BIZKAIA) - TEL: +34 94 455 60 88

WEBSITE: ATHLETIC-CLUB.EUS

